

Marmari Leitzako

9. zenbakia / 2004ko ekaina

aldizkari
gaztea

- Leitzako Gizarte Zerbitzua
- Asier Arzallusi elkarrizketa
- Leitza lehen eta orain
- Hizkuntzen inguruko uste okerrak
- Denborapasak...



Ongi
Etorri
HITZA!

zenbaki honetan:



● 3. or. Editoriala.

● 4-7. orr. Asier Arzallusi elkarrizketa.

● 8-10. orr. Leitzako Gizarte Zerbitzua.

● 11. or. Ezetz asmatu.

● 12-15. orr. Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA.

● 16-17. orr. Euskararen inguruko datuak Leitzan.

● 18-23. orr. Leiza lehen eta orain.

● 24-26. orr. Hizkuntzen inguruko uste okerrak.

● 27. or. Txistek eta Eroskopoak.

Ongi Etorri,

HITZA!

Ongi Etorri, HITZA! Horixe duzu Marmariren 9. zenbakiaren azalak dakarren mezua. Leitzako aldizkariak Leitzako eta eskualdeko egunkariari egiten dion harrera. Guretzat, izan ere, berri pozgarria baita HITZA bezalako proiektu bat bertan finkatzea. Beste euskarazko komunikabide bat gurean, eta herriko gaiak landuko dituen beste gune bat.

Orain arte Karrape Irratia, Ttipi-Ttapa aldizkaria eta Marmari aldizkaria genituen, abuztuan argitaratzen den Plazaola ahaztu gabe. Aurrerantzean HITZA ere gure etxeetara iritsiko da, hala nahi badugu behintzat, eta Leitzari buruzko jakin-garriak egunero izanen ditugu eskuartean, euskaraz idatzita.

Kontuan izan behar da 3.000 lagun eskas bizi garela Leitzan. Ez da, beraz, oso herri handia. Hala ere, herri komunikabideek toki polita lortu dute, eta argi dago herriarentzat gauza ederra dela hori. Horrelako gauzek eta ekimenek, besteak beste, ematen diote bizitasuna herriari, horrelako gauzei esker lortzen da herri bizi bat, mugitua, dinamikoa.

Eta, zer esanik ez, ekimen hauek, komunikabide hauek, euskaldunak izatea ere garrantzitsua da oso. Euskarak ere bere tokitxo egin du esparru horretan, eta komunikabide handietako eta orokorretako lehian erdara nagusi den arren, gutxienez gure herri euskaldun honetan euskara normaltasunez erabiltzen dugu bertako aldizkari, irrati eta egunkarietan.

Ongi etorri esaten diogu, beraz, HITZARI, eta leitzar guztiek ere ongi etorria

eginen diotela espero dugu, egunero irakurriz, eta, baita ere, harpidetza eginetz; izan ere, biak beharko ditu gure egunkari honek.

Eta, bestalde, Marmariko zenbaki honetan zer? Bada, ohi bezala, denetik pixka bat. Elkarrizketak (Asier Arzallus, Gizearte Zerbitzuko langileak), artikuluak (euskararen inguruko datuak, hizkuntzen inguruko usteak eta iritziak), denborapasak, eta, orrialde dezente hartuta, Leitzako argazkiak, atzokoak eta gaurkoak.

Leitza, atzo eta gaur. 1974an eta 2004an egindako argazkiak, elkarren ondoan, herria nola itxuraldatzen ari den ikus dezagun. Askotan, egunerokotasunean murgilduta, ez gara aldaketez ohartzeko, ez dugu ikusten pixkanaka —edo ziztu batean— herria nola aldatzen ari den. Baina nahikoa da Marmariren zenbaki honetako argazkiak ikustea aldaketaren tamainaz ohartzeko. Bai, gauzak aldatzen ari dira, eta ez azaleko itxuran bakarrik.

Aldaketak onak edo txarrak diren ez dugu guk esanen. Hori norberak baloratuko du. Baina begien bistara ekarriko ditugu, ariketa polita eta akaso beharrezkoa baita horretan ere errepertzea. Ea 2034an Leitzari eginen diogun argazkia nolakoa ateratzen zaigun.



Asier Arzallus

Saskibaloia jokalaria



FITXA

- **Izen-abizenak:** Asier Arzallus Gil
- **Adina:** 21
- **Altuera:** 2,04
- **Pisua:** 95 kilo inguru
- **Bizitokia:** Leitza eta Gasteiz
- **Ikasketak:** Gimnasiako irakasle-monitore izateko ikasten ari da
- **Lanbidea:** Saskibaloia jokalaria

«Balantzan alde onak eta txarrak jarrita, nik uste dut kiroletik bizitzeak alde on gehiago dauzkala»

Leitza herri txikia izaki, eta denok elkar ezagutzen dugunez, Asier Arzallus nor den azaldu beharrik ez dago. Hala ere, saskibaloian aritzen den mutil luze eta jatorra dela badakigun arren, haren berri zehatzagoa izatea ere interesgarri iruditu zaigu. Europako elitetan dagoen ekipoa da Tau, eta Tau-ko jokalaria Asier. Hori baino gorago ezin

da iritsi saskibaloian, Europan behintzat. Horraino nola iritsi den eta beste zenbait kontu galdetu dizkiogu, denon jakingarri.

■ **Herri kiroletan eta pilotan oso herri emankorra da Leitza. Futbolak ere, jakina, jarraitzaile asko ditu hemen. Zu, berriz, hainbeste za-**

le ez dituen saskibaloian aritzen zara. Altuera arrazoi bat izanen da, noski, baina gehiago ere izanen dira. Nola eta zergatik iritsi zinen gaur zauden tokira?

Neronek ere ia ez dakit. 14 urte arte lagunekin futboleantzen aritzen nintzen Leitza. Ordurako 1,88 metro luze nintzen, eta 14 urte neuzkala Santi Kirolake-

ko nagusiak esan zidan Tolosan saskibaloian aritzen zirela, eta probatzeko.

■ **Eta Santi Kirolakekoa nola oharu zen zutaz?**

Arropa erostera joanda ikusita. Bestela ere, Leitzako jendeari galdetzen zion ea jendea ezagutzen zuten, talde batean aritzen zirela, jendea behar zutela eta ea norbaitek hasi nahi zuen... Egun batean esan genuen probatuko genuela eta han hasi nintzen, Tolosan, kadetetan, oso gustura; bigarren urterako hartu nion, ongi nenbilen, eta Gasteizera jubenetara joan nintzen. Gasteizkoak enteratu ziren Tolosan nenbilela, ordurako 2 metro neuzkan, han aritu nintzen uda baten probatzen, eta hara joan nintzen bizitzera, 16 urterekin, kanpoko beste jokalaria batzuekin pisu batean.

■ **Eta erabaki hori hartzea, Gasteizera joatea, erraza izan al zen?**

Taukoak deika hasi zirenean, eta han entrenatzen hasi nintzenean-eta, ni erotuta, pozik nengoen. Kriston afizioa hartu nuen, asko gustatzen zitzaidan, eta ez nuen pentsatuko bi urtetan horrelako talde batean hasiko nintzela. Erotuta, kriston gogoarekin, ez nuen bi aldiz pentsatu.

■ **Hara joan baino lehen, Leitzan, ez zinen batere ibili saskibaloian**

■ Ez. Leitzan pilota eta futbola. Iruñea aldean ere ez dago gauza handirik saskibaloian.

■ **Ikasketekin nola moldatu zinen?**

Han jarraitu nuen ikasten. DBH Leitzan egin nuen, eta Gasteizen batxilergoan hasi nintzen. Zorrea izan nuen eta institutuan euskaraz ikasteko aukera izan nuen, Koldo Mitxelena. Oso giro ona zegoen eta oso ongi hartu ninduten.

■ **Gaur egun, non aritzen zara, zer taldetan?**

Tauko bi taldetan aritzen naiz, lehendabizikoarekin eta bigarrenarekin; gazteekin ere bai. Lehendabiziko taldearekin entrenatzen aritzen naiz, urte osoan, eta partidu askotara joaten naiz, bankilloan; jokatze-eta aukera gutxi izan



Asier txikitan.

dut, baina bankilloan bai. Eta bigarren ekipoarekin partida jokatu behar denean ere aritzen naiz. Entrenatu ere egiten dut haiekin; egun batzuetan bi ekipoekin entrenatu behar izaten dut, aurrena batekin eta ondoren bestearekin. Entrenamendu dezente.

■ **Entrenamendu gogorrak izanen dituzue.**

Bai, gogorrak dira. Ivanovic oso gogorra da, eta ia egunero-egunero aritzen gara. Alderdi fisikoa, teknikoa... Baloiarekin aritzen gara gehienetan, baina dena lantzen da.

■ **Saskibaloi partidak gogorrak izaten dira, ezta?**

Bai. Jendeak esaten dizu «nola nekatuko zarete, ba? Hain kantxa txikia...». Bai, baina ez da futbolearen bezala; saskibaloian denbora osoan gora eta behera ibiltzen gara denak. Kriston erritmoa da, ez daukazu astirik deskantsatzeko. Oso intentsoa da.

■ **Eta bizimodua nola antolatzen duzu? Entrenamenduak, ikasketak...**

Entrenatu arratsaldetan egiten dugu. Bi ekipoekin dudanean, adibidez, 6etatik 8etara batekin eta 8etatik aurrera bestearekin. Batzuetan goizetan ere izaten dugu, edo gimnasioa... Ikasi-eta, ahal dudanean, goizean ratotxo bat, edo arratsaldea libre dugunean, edo gogoa dudanean, nekatu ere egiten garelako...

■ **Baina bi ekipoekin entrenatzen duzunean, kontuan izanen dute hori, ezta?**

Bai. Bigarren ekipoko entrenatzaileak badaki lehendabizikoarekin aritu naizela eta, fisikoa baldin bada, agian esanen dit «zuk hau ez egin»... Taktikoan bai, baina fisikoan ez dit hainbeste eskatuko.

■ **Leitzara joan-etorriak nola egiten dituzu, zenbatero?**

Saiatzen naiz Leitzara ahal dudan guztietan etortzen; egun bat libre dudanean etorri egiten naiz. 100 kilometrorara dago, eta ordu batean sartzen zara. Amak esaten dit autoan sartu, botoiari eman eta piloto automatikoak

GALDETEGI LABURRA

- **Zaletasunak:** ehiza, kirola, Leitzan lagunekin egotea
- **Jakia:** denetatik; kirolariok jaten ohi duguna pasta, entsalada... izaten da
- **Edaria:** ura, normalean. Afari bat egiteko-edo, sagardo freskoa
- **Herri bat:** Leitzan
- **Bisitatzeko toki bat:** Usategietako bista asko gustatzen zait; Goizuetako zulo osoa, itsasoa ikusten dira
- **Mania bat:** deusetan galtzea ez zait gustatzen eta haserretu egiten naiz, dena oso serio hartzen dut. Kaskagogor antxa.
- **Musika:** era guztietakoa entzuten dut, baina momentu bakoi-tzak bere musika dauka
- **Irakurtzeko:** liburuak-eta gutxi; gehienbat kirol aldizkariak, saskibaloien ingurukoak
- **Asko maite duzu:** familia, lagunak; Gasteizera joanda horren falta sumatzen duzu
- **Ezin duzu jasan:** gezurretan aritzea, faltsukeria
- **Gustuko lanbide bat:** saskibaloia
- **Oso luzea izatearen abantailak:** adibidez, lagunekin-eta mesedea da nire altuera, galduz gero berehala ikusten nautelako. Eta saskibaloian aritzeko abantaila da, noski
- **Eta desabantailak:** ni normal bizi naiz, eta ez dut arazorik. Jendeak esaten didana, ateekin kontuz ibili beharra-eta, ez da inongo arazoa. Izatekotan, batzuetan, arroparekin: zapati-lak... ez duzu nahi duzun guztia
- **Saskibaloj-jokalari bat:** Benet. Kriston jokalaria da, nortasun handikoa, kristoren kastakoa
- **Kirolari bat:** Indurain



Kamiseta ilunarekin eskuinean dagoena da Asier.

gidatzen duela.

■ **Han pisu batean bizi zara, beste norbaitekin**

Bai, pisu batean bizi naiz, irakasle eskolan ikasten ari diren Leitzako beste bi lagunekin: Unai Sagastibeltza eta Iker Aizagirre.

■ **Presiorik-edo sentitzen al duzu zure tokian?**

Presioa beti egoten da. Aurreneko taldean zaudenean, atera behar duzunean... Bigarrenarekin gutxiago, baina baita ere, Tau-ren kamiseta daramazulako, eta toki guztietan jendeak asko espero du zuregandik, eta beti erakutsi beharra daukazu zergatik zauden hor. Aurreneko urtean gehiago nabaritzen da, baina azkenean ohitu egiten zara.

■ **Lehendabiziko ekipoa, behintzat, oso elitekoa da. Urduritasuna ere nabaritutako da.**

Bai, ateratzen zarenean nerbioak eta hor daude. Jendea, gainera, umeak-eta, gazteak, autografo eske etortzen da. Eta esaten duzu, ni pertsona normal bat naiz, eta kriston grazia egiten dizu zure zain egotea autografo bat eskatzeko.

■ **Nola ikusten duzu zure etorkizuna?**

Ez dakit. Tau-en zaila dago, badakizu, Europako talde onenetakoa da, jokalaria oso onak ditu eta aukera gutxi egoten dira; baina oso gustura nago, entrenatzen eta asko ikasten ari naiz. Ez naiz orain hasiko pentsatzen zer pasako den, momentuz on-

gi nago eta ikusiko da.

■ **Parrandak-eta, nola moldatzen zara? Lagunen aukerak inbidiarik ematen al dizu?**

Gasteizen-eta, badakizu, beti gogoia izaten da parrandarako, eta nik uste dut denetarako izaten dela denbora; dena bere neurrian eta bere garaian eginez gero ez dago problemarik. Ezin zara hasi aterojuergan eta juergan, beste edozein bezala, baina beti izaten da denbora juergarako, lanerako... Juerga egin eta biharamunean entrenatzen baduzu... pasatu gabe, noski, ezin zara lurretik ibili. Baina libre daukagunean, besteak bezala, pertsona normalak gara, ez da deus gertatzen juerga pixka bat egiteagatik. Bestela txarra da, burua beti gauza batean edukitzen baduzu, psikologikoki ere ez zaude oso ongi, beti kirola, kirola, kirola... Kirolaz pixka bat deskonektatu beharra duzu.

■ **Saskibaloiak hainbeste jarraitzaile ez izateak, futbolaren aldean esaterako, pena ematen al dizu? Edo berdin zaizu?**

Bai, kristoren amorrazioa ematen dit. Berrietan, beti futbola, futbola, futbola... Futbola 25 minutu, minutu bat saskibaloia, beste minutu bat pilota. Hortxe egoten zara esperoan, eta igual ez dute deus esaten. Tau-k jokatzen du errege kopako finala eta minutu erdi bat botatzen dute, eta gero futboleko bigarren maila B-ko partida osoa ematen dizute. Horrek amorrazioa ematen dit. Gasteizkoa, adibidez,

españoligo ligan gehien betetzen den aretoa da, 9.000 lagun sartzen dira; asko da 200.000 biztanleko hiri baterako

■ **Gasteizen afizio handia dago, nonbait, eta jarraitzaile sutsuak dituzue. Nola sortu da giro hori? Ekipo on batek ekarri du giroa, edo giroaren ondorioz lortu da ekipoa ona ekartzea?**

Nik uste dut Gasteizen beti egon dela giro hori. Lehen Mendizorrotzan aritzen ziren. Gero pasa ziren Buesara, 5.000 ikuslerentzat zen, eta gero kupula altxatu zioten eta 9.500 lagun sartzen dira. Nik uste dut beti nahiko afizio handia izan dela eta ekipoa, hasieran agian ez, baina gero hasi zen Europa mailan nabarmentzen, eta gero eta ikusle gehiago. Futboleko, gainera, orduan Alaves ez zegoen oso goian, eta orduan denak saskibaloira. Azken aldian Alaves nahikoa goian egon da, UEFAn-eta, eta pixka bat banatu da, baina hala ere saskibaloiak jarraitzen du afizio handia edukitzen.

■ **Futboleko, esaterako, talde gehienetan izaten da harrobiko jendea, zaleak bereziki maite dituzten jokalaria. Tau-ko lehendabiziko ekipoko titular guztiak atzerritarak izanda, zerk motibatzen du bertako zalea? Ez al zaio pixka bat arrotza gertatzen?**

Jendeari beti gustatzen zaio hemengo jokalarik ateratzea; ateratzen garenean kriston txaloak egiten dizkigute, baina

Europa mailan goi-goian dago eta punta-ko jokalaria ekartzen dituzte, Europa mailako onenak. Hemengo jokalariren bat edo beste egotea ongi egonen zen, baina...

■ **Eta zure burua hor ikusten duzunean, maila horretako ekipoan eta jokalariekin...**

Bai. Ohitu egiten zara eta ez zara ohar-tzen. Baina batzuetan, hor zaude, eta esaten duzu, «hemen nago bankilloan, Europako finalera pasatzeko, ligan ere hor-txe...», pentsatzen hasten zara, «honaino iritsi naiz», eta ilusioa egiten dizu.

■ **Egin ezazu saskibaloia-aren apolo-gia pixka bat**

Leitzan ez dut uste afizio askorik sortu-ko denik edo ekipo bat ateratzeko modua egonen denik, baina sarrerak eskatu eta ikustera joan diren guztiei asko gustatu zaie; oso bizia da, giroa oso polita da, musika, jende asko... Oso dibertigarria iruditzen zait. Nik aditu diodan jende guztiak, inoiz ikusi gabe zegoena, ikusi ondoren esaten du asko gustatu zaiola. Futbole-ko, adibidez, partida txarra izan daiteke, zero eta zero... Saskibaloian, berriz, ez zara asperten, denbora osoan gora eta behera ari gara.

■ **Zure taldeko atzerritar horiek guztiak, euskararen existentziaz ohartu al dira?**

Ekipoan toki askotako jendea dago: ingelesak, lituaniarak, hungariarrak, argentinarrak... Batzuk badaude hemen urte batzuk egin dituztenak, Scola argentinarra adibidez, eta horri hitz batzuk erakutsi dizkiot, 1etik 10erako zenbakiak, «muxu bat»... Baina gaur hemen dauden bezala, agian hurrengo urtean Moskun egonen dira, eta hurrengoan ez dakit non. Euskara entzuten dute eta harrিতuta gelditzen dira, euskaraz entzuten bagaituzte, «zer da?» galdetzen dute. Erdaraz ikasi dituzte hitz batzuk, eta urte bukaerarako hitz egiten dute zerbait, baina euskaraz ez.

■ **Nola moldatzen zarete elkarren artean hitz egiteko?**

Entrenatzaileak hitz egin behar izaten du batzuekin ingelesez, besteekin gaztelaniaz; normalean gaztelaniaz hitz egiten



Ihauterietan.

du, baina beste guztiek badakite ingelesez, eta bigarren entrenatzaileak ingelesera itzultzen du. Entrenatzaileak badaki gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez –lehenago frantses bat egon zen eta hari frantsesez egiten zion-, eta Jugoslavia ohikoa denez, hango hizkuntzaz; hango jokalaria ere badaudenez, lau hizkuntzatan aritzen da.

■ **Eta zuen artean?**

Ingelese, normalean. Gaztelaniaz ere hitz batzuk badakizkitez, baina ingelesez normalean.

■ **Moldatzen al zara ingelesez?**

Bai. Beno, moldatu, oso ongi ezta ere, baina komunikatzeko, gauza errazena eta normalena esateko-eta, bai. Hitz zailak-eta ez, baina ulertzen diet beti ere, eta esan nahi dudana ulertarazten diet haiei.

■ **Saskibaloian, elitean behintzat, ez du ematen euskaldun asko dabi-**

lenik. Zergatik?

Ez dakit. Hemen batez ere futbola dago. Saskibaloian Gasteizen bakarrik dago puntako ekipo bat, eta ez dakit horregatik den, edo Euskal Herrian beste tradizio bat izan delako, pilotako edo beste kirol batzuetako tradizioa...

■ **Zer eman dizu saskibaloiak?**

Ni saskibaloiarekin hazi naiz. 16 urterekin joan nintzen Gasteizera, eta han hazi naiz, eta saskibaloiarekin sufritzen ikasten da, bizitza zer den, ongi pasatzeko sufritu behar dela, lan egiten...

■ **Eta zer kendu dizu?**

Beti galtzen dira gauzak. Beste gauza batzuk egiteko denbora galtzen da. Denbora gutxiago daukazu nahi duzun gauzak egiteko, jendearekin egoteko, juergak-eta, baina gauzak horrela hartu behar dira, hau edo hori aukeratu; hala ere, balantzan alde onak eta txarrak jarrita, nik uste dut kirole-tik bizitzeak alde on gehiago dauzkala.

■ **Leitza eta Gasteiz. Alde onak eta txarrak zein dira?**

Gasteiz hiri bat da eta Leitza herri txiki bat. Gasteizen daude Leitza ez dauden gauza asko, zentro komertzialak, zineak... denetatik badaukazu. Leitza, adibidez, gauza batzuk erosteko kanpora joan behar da. Baina Leitza giroa ez nuke aldatuko Gasteizkoarengatik. Hura hotzagoa da, jendeak ez du elkar ezagutzen, zure auzo-koak edo portalekoak ezagutzen dituzu, baina ez duzu jende guztiarekin harremanik; hemen Leitza denekin hitz egiten duzu, denak ezagutzen dituzu, eta txikitatik horrela ohitu gara, giro honetan, lasaitasu-



Jaunartzeko argazkia.

Leitzako Gizarte Zerbitzua

Badakigu Leitzan Gizarte Zerbitzua egon badagoela. Zerbitzuan nor aritzen diren ere, ziur asko, jakin badakigu. Baina, beste arlo askotan gertatzen den bezala, agian ez dakigu hain ongi zerbitzuak zehazki zer egiten duen eta nola egiten duen. Hurbilen gertatzen zaigun arloa ezagutzen dugu, edo inoiz erabili izan duguna... baina agian ez dugu zerbitzua bere osoan ezagutzen.

Artikulu honetan, Gizarte Zerbitzua-
ren inguruko argibide batzuk ekartzen saiatu gara, denok hobeki ezagutu ahal izan dezagun. Zerbitzuak egiten duenaren azalpen laburra eta azkarra da, noski, baina hura hobekixeago ezagutzeko balioko duelakoan gaude. Informazio gehixeago edo zehatzagoa behar duenak, hementxe aurkituko ditu behar dituen helbide eta telefono zenbakiak.

FITXA

Erakundea: Gizarte Zerbitzua.

Osaketa: Leitzua, Goizueta, Areso eta Aranoko Udalen Mankomunitatea

Egoitza: Patxi Arrazola, 24.

Telefonoa: 948 510 840

948 510 683

948 514 313

E-posta: ssbleitza@infolocal.org
leitzaalde@telefonica.net

Langileak:

- Gizarte langilea (lanaldi osoa)
- Administraria (hiru ordu laurdeneko lanaldia)
- Bi hezitzaile (batek lanaldi osoa eta besteak bost ordu egunean)
- Sei familia-langile (bi lanaldi osoan, bi hiru laurdeneko lanaldian, eta bi lanaldi erdian).

Finantziarioa:

- Nafarroako Gobernua (Ongizate Institutua eta Osasun Departamendua)
- Leitzua, Goizueta, Areso eta Aranoko Udalen Mankomunitatea
- Etxez etxeko zerbitzuaren erabil-tzaileek ordaintzen dituzten tasak

Babesturiko gizarte laneko programan ari diren langileak.



HISTORIA, LABUR-LABUR

Gizarte Zerbitzua 1990eko urrian sortu zen; garai hartan gizarte langilea eta administrari bat hasi ziren lanean, eta oraindik ez zeuden martxan sortuko ziren programak.

1991 urtean etxez etxeko laguntza zerbitzua eratu zen. Zerbitzu hori emateko 4 langile kontratatu ziren, horietako bi lanaldi osoan eta beste biak lanaldi erdiko kontratuarekin. Urtebete geroago, 1992an, Okille Tailerra sortu zen, Leitzaiko ezinduentzako zerbitzua ematen duena hain zuzen.

Zenbait urtetan aldaketarik gabe egon ondoren, 1998ko irailean Drogamenpekotasunaren Prebentzio Programarako hezitzaile bat kontratatu zen lanaldi osoan, eta, horretaz gain, etxez etxeko zerbitzu programarako beste bi langile gehiago kontratatu ziren. Azkenik, 1999ko uztailan, Babesturiko Gizarte Laneko Programa abiatu zen. Azken Programa horren iraupena bederatzi hilabetekoa izaten da.

Programa horien guztien zuzendaritza, koordinazioa eta jarraipena gizarte langileak egiten du.

GIZARTE ZERBITZUAREN PROGRAMAK ETA ATALAK

1.1. Programa orokorra: arazo edota laguntzaren bat behar denean, erabili beharreko lehenengo zerbitzua da. Harrera zerbitzua deitzen zaio. Zerbitzu honetan pertsonak, familiak edo taldeen beharrak ezagutu eta aztertzen dira, eta konponbide bat emateko ahalegina egiten da haiekin batera. Aztertu den gaia zerbitzuaren eginbeharretan sartzen baldin bada, zerbitzuak berak dituen programetara bideratzen da (jarraian azaltzen da programa horiek zein diren); aztertu den arazoa edo eskaera gizarte zerbitzuaren eginbeharra ez baldin bada, behar den lekura bideratzen da: Osasun Etxea, Ikastetxea, Udala, Ongizate Institutua, Gizarte Segurantzza, Caritas, Emakumearen Institutua, Cofes...



Leitzaian eta Areson etxez etxeko zerbitzuan aritzen diren langileak, Gizarte Laguntzailea, Babesturiko Gizarte Laneko programaren arduraduna, eta Drogamenpekotasunaren Prebentzio Zerbitzuko arduraduna.

1.2. Etxez etxeko laguntza zerbitzua: pertsonak eguneroko lanak egiteko zailtasunak dituzenean (gaixotasunak, adina edo bestelako ezintasunen bat) beraren etxean eskaintzen zaio zerbitzua; beti ere, norberaren autonomia ahal den gutxia indartuz. Laguntza eta zerbitzu hau, beharra duten pertsona guztiei zuzendua dago, eta gehienek bi ordukoa da. Laguntza gehiago behar izanez gero, eta beren baliabideekin ezin badute pertsona bat kontratatu, Nafarroako Gobernuari diru laguntza eskatzen zaio.

1.3. Drogamenpekotasunaren prebentzio programa: osasunerako heziketa lantzen du; gure gizartean drogak egon zirenean, daude eta egongo dira, eta horre-

lako gizarte batean drogamenpekotasunik gabe aske bizitzeko heziketan oinarritzen da zerbitzu hau. Beraz, hezkuntzan oinarritutako prebentzio-ekintza baten alde lan egiten du: jarrerak, balioak, ohiturak, bizimoduak eta gizarte trebetasunak sustatzen ditu. Horretaz gain, drogei buruzko informazioa ematen da, eta arazoren bat dagoenean horri aurre egiteko dauden baliabideak azaltzen dira. Horretarako lau arlo ezberdinetan lan egiten da: hezkuntza sistema, haur eta gazteen aisialdia, komunitatea eta zuzeneko harremanak.

1.4. Babesturiko gizarte lana: oinarriko errenta jasotzen duten pertsonen edota beren egoeratik lan normalizatu batean aritzeko zailtasunak dituzten pertsonen zuzendua dago. Programa hau bederatzi hilabetekoa da. Hasieran pertsona bakoitzarekin helburu batzuk finkatzen dira; horiek lortzen diren heinean programa utzi eta lan normalizatu batera bideratzen dira. Helburuak betetzen ez badira edo partaideak aurrera pausorik ematen ez badu, partaide horrek programa uzten du eta beste bati ematen zaio aukera. Partaideen jarduna bi arlotan banatzen da: alde batetik, herriko lanetan aritzen dira; bestetik, hezitzailearekin gizarte trebetasunak eta lanerako gaitasunak lantzen dituzte, jarritako helburuak lortzeko.

**Gizarte Zerbitzua
1990eko urrian sortu
zen; garai hartan
gizarte langilea eta
administrari bat hasi
ziren lanean, eta
oraindik ez zeuden
martxan gerora sortuko
ziren programak**



2003ko haur, guraso eta eskolen arteko topaketak.

GIZARTE ZERBITZUKO ORDEZKARIEKIN HIZKETAN

■ Zer da gizarte zerbitzua: asistentzia hutsa, heziketa, laguntza?

Beharren arabera, denetatik egiten da. Beti ere kontuan izanda herritarrari edo zerbitzua erabiltzen duenari behar dituen tresnak eskainiko dizkiogula, berak ahal duen neurrian aurrerapausoak egin eta erabakiak har ditzan.

■ Arazoak konpontzeko «barita magikorik» ba al duzue?

Ez. Askotan jendea horren bila etortzen da, baina norberak izan behar du gure laguntzarekin egoerari aurre egin behar diona. Horrek ahalegin handiagoa eskatzen du, baina, aurrera begira, pertsona horren garapenerako positiboa da bera izatea bere arazoei aurre egiten diona.

■ Zertarako behar da gizarte zerbitzua?

Gizarte honek dituen hutsuneei erantzuna eman ahal izateko. Biztanleen bizi kalitatea hobetzeko, beti ere horretarako baliabideak eta tresnak eskainiz.

«Herritarrari edo zerbitzua erabiltzen duenari behar dituen tresnak eskainiko dizkiogu, berak ahal duen neurrian aurrerapausoak egin edo erabakiak har ditzan»



Goizuetan eta Aranon etxeko zerbitzuan aritzen diren langileak.

■ Noraino bete behar du administrazioak gizarte zerbitzuak bermatzeko funtzioa?

Administrazioaren egin beharra herritarren ongizate soziala bermatzea da, eta, horretarako, oinarrizko beharrei erantzuna eman ahal izateko, gizarte zerbitzuek administrazioaren esku egon behar dute, hezkuntza, osasuna... dauden bezala

■ Herritarrek ezagutzen eta estimatzen al dute zerbitzua?

Oso zerbitzu zabala da, baina gehienbat adineko jendearekin, diru laguntzekin... lotzen da. Eskaintza, ordea, askoz zabalagoa da, eta jendeak oraindik ez ditu

eskaintza guztiak ezagutzen.

■ Nor dira zerbitzua gehien erabiltzen dutenak?

Programen arabera erabiltzaileak aldatu egiten dira. Gizartea aldatzen doan neurrian gure zerbitzuen erabiltzaileen perfila ere aldatzen da.

■ Zein dira Leitzaan ikusten dituzuen behar eta gabezia handienak?

Familiakin eta familietan lan egiteko programa; haur eta gazteentzat aisialdi-rako azpiegiturak; adineko jendearentzat azpiegiturak sendotzea; helduen hezkuntza bultzatzea (alfabetatzea, sexualitatea, informatika, hizkuntza eta eguneroko bizitzarako ikasketak); jendearen parte-hartze eskasa.

■ Orain arteko lanaren balorazio azkarra egin dezakezue?

Orain artekoa oso positiboa izan da. 1990ean hasi ginenean harrera programa besterik ez zegoen eta gaur egun lau programa ditugu. Programa horiek aurrera eraman ahal izateko, nolana ere, Mankomunitatearen onospena behar izan da, horrek dakarren guztiarekin (ardura, udalek ordaindu beharrekoa...)

Ezetz asmatu

Igandeko mezara joanda, argazkian dauden horietako zenbat aurkituko dituzu? Orduan bai, denak txintxo plantak egiten, inoiz plater bat hautsi ez balute bezala. Gaur egun, ordea, askok beste itxura bat dute, eta aurpegiera ere gaiztotu zaie.


Ez denei, ordea. Batzuk, egia esan behar bada, berdin-berdin daude, urteak pasa ez balira bezala. Hori zortea, aizu!

Zenbaki honetan, 5-6 argazki zahar jarri beharrean, bat bakarra jarri dugu, baina oso jendetsua. 20 urte inguru dauka argazki honek, baina horrek ez dizue galaraziko, ziur asko, bertan dauden gehienak ezagutzea. Denak ezagutzea gehiegi eskatzea da, baina ea dezente asmatzeko gauza zarenten. Animo!



Pertsonai ezkutua

Batzuetan errazegi jarri dugu, beste batzuetan zailegi. Ez dago beti asmatzerik. Nolanahi ere, zaila edo erraza den oso subjektiboa da, ezta? Zuri akaso zaila egingen zaizu, baina zure ondokoak berehala asmatuko du. Ezinezkoa, behintzat, ez da, eta saiatuz gero ziur atzean nor dagoen asmatzen duzula.





Tolosaldeko eta

Leitzaldeko

HITZA

Leitzan egindako aurkezpena.

Honezkerok denok ongi ezagutzen dugu Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA. Astelehenetan izan ezik, egunero-egunero gure etxean agertzen den egunkaria. Leitzeta eta Aresoko berriak frexko-frexko ekartzen dizkigun euskarazko egunkaria.

Gauza ederra da, inondik ere, gure herriko berriak egunero jaso ahal izatea, etxean, eta EUSKARAZ. Gauza ederra da, noski, baina ez egun batetik bestera lortzen dena. Guk, egia esateko, zorte handi samarra izan dugu eta martxan zegoen proiektu batean sartzea besterik ez

dugu egin beharrik izan. Alegia, ez gara hutsetik hasi, eta trenean igo besterik ez dugu egin beharrik izan.

Artikulutxo honetan, HITZA egunkaria gurera nola eta zergatik etorri den gogorarazi nahi dugu, garrantzitsua iruditzen zaigulako. Hasieran etxe guztietan dohainik banatu da, baina laster harpidetza bitartez jaso beharko da. Proiektuak aurrera egin eta finka dadin, beraz, ezinbestekoa izanen da Leitzan eta Areson harpidetza kopuru polita lortzea, eta guk horretara animatu nahi zaituztegu denak. Izan ere, oso merke ateratzeaz gain (urte-

an 40 ¢, egunero etxean utziko diguten egunkariaren truke), oso interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zaigu.

HITZA LEITZARA NOLA IRITSI ZEN

Urte hasieran HITZAko arduradunek Leitzako Euskara Batzordearekin hitz egin zuten. Tolosaldeko HITZA Leitzaldera zabaltzeko aukera aztertu nahi zuten, eta, beste deus egin baino lehen, bertakoen iritzia ezagutu nahi zuten. Beste hainbat ekimenekin egin den bezalaxe (Bai Euskarari Akordioa, esaterako, Oinarriak kanpainak, BERRIA egunka-

riaren akzioak...) Euskara Batzordeak ere HITZAri laguntza ematea erabaki zuen.

HITZAkoek eskatuta, beraz, bilera zabal pare bat antolatu ziren. Leitza eta Aresoko jendea bertan zela. Bilera horietan proiektuaren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertu genuen denon artean. Proiektua ezagutu genuen, aukerak aztertu ziren, eta erabaki bat hartu zen: Leitza eta Areson ere HITZA zabaltzea, eta proiektua errotzeko ahalegina egitea.

Ondoren, HITZAK berak deialdia egin eta kazetari lanpostua betetzeko probak egin zituen. Aurkeztutako hautagaien artean Jaione Astibia leitzarrak eskuratu zuen lanpostua eta geroztik bera ari da kazetari lanak egiten.



HITZAK Leitzako udaletxean dauka egoitza.

HITZA BULTZATZEKO ARRAZOIAK

Apustu hori egiteko arrazoiak ugariak dira, baina agertu ziren guztien artean hiru azpimarratuko ditugu, gure ustez eta gure ikuspuntutik garrantzitsuenak:

Herritarrentzako zerbitzua:

Egunero-egunero herriaren inguruko informazioa edukitzea, bertakoa eta bertan landua, herritarrentzat benetan interesgarria da. Irratiak ematen duen zerbitzua osatuz, herritarrak bertako gauzen inguruan ongi informatuta egotea lortuko da. Hurbi-leko informazioa izanen da, eguneratua.

Herrigintza:

Leitza eta Areson elkarte, talde eta erakunde ugari dago, era guztietakoak: kultura, musika, kirola, sindikalgintza, hezkuntza... horiek guztiek aberasten dute herriko bizitza soziala, eta haien lana indartzeko eta ezagutarazteko modu bikaina da HITZA bezalako egunkari bat. Bertan izanen dute leihoa talde horiek guztiek, egiten duten lana erakusteko eta antolatzen eta egiten dituzten gauzen berri emateko: deialdiak, ekitaldiak, egitasmoak...

Euskararen normalizazioa:

Informazioaren esparrua irabaztea eus-

kararentzat erronka oso garrantzitsua da. Informazio lokala euskaraz jasotzea, eskubide bat izateaz gain, euskararen normalizazioan aurrerapauso handia da. Gainera, egunero euskarazko egunkaria hartzea, jendea euskaraz irakurtzen ohi-tzeko modurik eraginkorra izan daiteke, eta bizitzako beste alor batzuetan euskaraz -idatzia batez ere-, normal erabili ahal izateko oso lagungarria izanen da. Euskarari berari ere prestigioa ematen dio, eta balio praktikoa.

Arrazoi horiek bultzatuta erabaki zen apustua egitea, eta apustua gauzatu da. Lehen esan bezala, martxan zegoen proiektua zenez, tren horretara igotzea besterik ez dugu egin, eta hori nahikoa erraza izan da. Zailxeagoa akaso baina askoz garrantzitsuagoa da, aurrerantzean, produktu on bat egin eta jende artean errotzea.

HARPIDETZA

Neurri batean, behintzat, denon esku dago proiektu hau lagundu eta finkatzea.

Biderik eraginkorra eta onena, jakina, harpidetza egitea da. Urtean 40^{re} ordainduta, egunero-egunero etxean izanen dugu gure herriaren inguruko informazioa: berriak, deialdiak, ekitaldiak, jakingarriak... Guri, behintzat, sekulako pagotxa iruditzen zaigu, eta Tolosaldean izan duen harrera ikustea besterik ez dago gauza ederra dela ikusteko.

Beraz, anima gaitzen denak, eta egin gaitzen Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAko harpidedun.



HITZA etxean hartzeko, harpidetza egin ezazu

HITZA egunkaria ezagutzen duzu; azken hilabete pasatxoan etxe guztietan banatu da, doan. Aurrerantzean, ordea, etxean jasotzeko harpidetza egin beharko da. Ekainaren 28tik aurrera, HITZA etxean hartzeko, izena eman eta urtean 40€ ordaindu beharko dira. Pagotxa ederra! Izan ere, hain diru gutxiren truke, urte osoan, astartetik igandera, herriko informazioa etxean izanen duzu, frexko-frexko.

HITZA sendotu dadin eta etorkizuna ziurtatua izan dezan, ezinbestekoa da harpidetzak egitea. Beraz, proiektu interesgarria delako, hemen agertzen garen guztiok harpidetza egin dugu edo berehala egingen dugu. Zu ere animatu nahi zaitugu. HITZA behar dugu, HITZak behar gaitu.

NIK ERE HARPIDETZA EGIN OUT!!!



ARANTXA BARRIOLA



ARANTXA IPARRAGIRRE



LOURDES BALANTZATEGI



MIKEL ZABALETA



SAIOA ANAUT



JUAN BAUTISTA IRAZOKI



JUAN RAMON LIZARRAGA



KARLOS AGIRRE



LEITZAKO EUSKALTEGIA



JOSEBA SAGASTIBELTZA



MAMEN HUARTE



GABRIEL SARALEGI



KARMELE LAZKANO



Euskara da leitzar gehienen ama-hizkuntza.

EUSKARAREN INGURUKO DATUAK LEITZAN

Hemen dituzun datuak, 2001ean Nafarroako Gobernuak egindako erroldatik atera ditugu. Datu ofizialak dira, beraz, eta leitzarrek emandako informazioan oinarrituta daude. Alegia, leitzarrek berek emandako datuak dira, guk gerok geure buruaz esandakoa. Errolda horretan informazio gehiago ere bada, noski, baina guk euskararen ingurukoak soilik ekarri ditugu hona.

Datuak taulatan eman ditugu, eta, ondoren, gure ustez garrantzitsuak diren zenbait alderdi aipatu edo azpimarratu ditugu. Euskararen egoera zein den jakitea interesgarria da, eta, beste alderdi edo atal asko kontuan hartu behar diren arren, erroldako datuak ere gure ikuspegia osatzeko balio dutela uste dugu.

HONATX, DATUAK:**Euskararen ezagutza Leitzan:**

Ongi ulertu	Ongi hitz egin	Ongi irakurri	Ongi idatzi
91,58	90,5	86,91	86,9

Euskararen ezagutza Leitzan (informazio berbera, beste era batean emana)

Guztira	Euskaldunak			Ia-euskaldunak			Erdald.
	Alfabetatua	Erdi. alfabet.	Alfabet.gabe	Alfabetatua	Alfabet.gabe	Pasiboa	
% 100	% 83,92	% 4.46	% 1,57	% 1,47	% 2,19	% 0,03	% 5,01

Leitzako biztanleen ama-hizkuntza

Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat
87,46	9,44	1,54	0,24

Etxean gehien erabiltzen den hizkuntza

Euskara	Gaztelania	Biak	Beste bat
82,17	10,26	6,07	0,17

DATUEN INGURUKO ZENBAIT OHAR

- Ezagutzaren inguruan, gure ustez behintzat, daturik garrantzitsuen «Ongi hitz egin» atalean biltzen dena da. Hori da euskaldunen portzentajea erakusten duena. Datu hori, eta baita «ulertzen du» atalekoa ere, nahikoa fidagarriak iruditzen zaizkigu. «Ongi irakurri» eta «Ongi idatzi», ordea, askoz labainkorragoak dira. Ongi irakurtzea eta ongi idaztea zer den, ziur asko, ez dago hain garbi eta hain adostua euskaldunen artean, eta oso interpretazio ezberdinak egin litezke.
- Leitzan 10 biztanletik 9 euskaldunak gara. Ez dago ikerketa handirik egin beharrik hori horrela dela jakiteko, baina azkeneko urteotan egindako galdetegi guztiek datu bera egiaztatu dute behin eta berriz. Oso herri euskalduna da Leitzan, zalantzarik gabe.
- Leitzako biztanle gehienek (% 87,46) ama-hizkuntza bakarra euskara da. Gutxi batzuk euskara eta gaztelania, biak, dituzte ama-hizkuntzatzat. Euskara etxean txikitatik ikasi zutenen portzentajea, beraz, % 89koa da. Gaur egun euskaldunen portzentajea % 90,5koa denez, ikusten da euskarak zer edo zer irabazi duela, eta sortzez erdaldun ziren horietako batzuk erakarri dituela.
- Normala den bezala, Leitzan etxean gehien erabiltzen den hizkuntza euskara da. Erantzun duguna egia baldin bada behintzat, gehien-gehienok etxean euskaraz egiten dugu. Euskaldunen portzentajea % 90 da, eta etxean euskaraz egiten dutenena % 82. Erdaldunen presentziak, jakina, izanen du horretan zerikusia, beste zenbait faktorekin batera.
- Ezagutzari dagokionez, % 100etik nahikoa hurbil gaude eta garbi dago euskararen transmisioa momentuz nahikoa ziurtatua dagoela. Erabileraren inguruko datuak dira, bestalde, hizkuntzaren osasuna hobekien islatzen dutenak, eta erroldek, etxeko erabileraz gain, ez dute horren inguruan argi handirik ematen.
- Datuok, jakina, zenbakiak dira, portzentajeak. Tentuz erabili behar dira, eta errealitatearen argazkia beste era bateko informazioarekin osatu behar da. Erroldako datuek gutxitan ematen digute ustekabekorik; bost urtean behin biltzen dira, eta, orain arte behintzat, erakutsi diguten egoerak ez du aldaketa handirik izan.

Leitza

lehen eta orain

Leitza aldatzen ari da. Ez dago zalan-tzarik. Gauza asko aldatzen ari dira herrian: bizimodua, lanbideak, harremanak, zerbitzuak, ohiturak... Eta, noski, herriaren itxura bera. Aldaketa horiek onak edo txarrak diren eztabaidagarria da, eta horren inguruko iritziak ere oso ezberdinak izanen dira, honi galdetuta edo hari galdetuta.

Argazki bilduma honen bitartez, aldaketa horien guztien artean, Leitzako herriaren itxurak izan duen aldaketa nabarmendu nahi izan dugu. Leitzako etxe askok, duela 30 urte, oso bestelako itxura zuten. Baina askotan, etxe bat berritzen denean, oso azkar ahazten zaigu zein zen haren aurreko itxura, eta iruditzen zaigu beti orain bezalakoa izan dela. Duela 30 urteko argazkiak begiratzea besterik ez dago, ordea, benetan aldaketa handiak gertatu direla ikusteko.

Erreportaje honetan agertzen diren argazkiak 1974 urtekoak dira, eta ondoan jarri ditugu 2004an egindakoak, kontrastea nolakoa den hobeki antzemateko. 30 urte ez da asko, egia esateko, baina herriaren itxuraldaketa ez da nolana hikoia, ikusiko duzuen bezala.

Argazkiak Jose Migel Elosegik egindakoak dira, eta zinez eskertu nahi diogu Marmari aldizkarian erabiltzeko utzi izana, ez baitigu horren truke deus ere eskatu. Aukera hau baliatu nahi genuke, bestalde, Jose Migel Elosegiri eskerrak emateko hainbeste urtetan egindako lan ikaragarriagatik: Leitzako mapa toponimiko dotorea; Leitzako toki-izenak biltzeko egindako lan handia; herriko etxe, baserri eta borden argazki zahar nahiz berriak; eta beste hainbat ekarpen interesgarri. Mila esker, beraz, Jose Migel.



Domintxenea



Txopkonea



Ariñalde



Beltranea Beikoa





Erasunea



Domingonea



Lasartenea





Alzatea - Elbarren



Lesakenea



Alzatea - San Miguel





Malesakenea



Arakindegia



Ontsalunea





Tolarea - Txatalingonea



Sarasa



Musun Zar



NEPALERA

SWAHILIA

MONGOLIERA

TELUGUABRETOIERA

ERRUSIERA

SUOMIERA

FRANTSESA

INGELES

LATINA

GAZTELERA

ITALIERA

hizkuntza zailak

hizkuntza errazak

Hizkuntzen inguruko uste okerrak

Pertsonak gara eta, noski, uste eta iritziek gobernatzen gaituzte. Bizitzako alor guztietan gertatzen da, zalantzarik gabe, eta baita hizkuntzen inguruan ere. Alegia, hizkuntzen gaineko aurreiritzi edo prejuizio ugari daukagu, eta askotan ez gara horretaz ohartzen. Uste okerrak, gainera, erraz zabaltzen dira eta gero ez da erraza izaten horien kontra egitea; bestalde, horien atzean askotan ideologia eta interes jakinak egoten dira.

Artikulu honetan hizkuntzen inguruko aurreiritzi eta topikoez hitz egingen dugu. Oso ohikoa da hizkuntzei adjektibo batzuk eranstea: modernoa/primitiboa, handia/txikia, simplea/komplexua... Baina adjektibo horiek ez dute inolako oinarri zientifikorik, usteak besterik ez

dira, zorrotasun zientifikorik gabeak, eta kalte handia egiten dute; izan ere, hizkuntza askori prestigioa kentzen diote, eta prestigiorik ezak, beste zenbait faktorekin batera, eskubideak ukatu eta urratzea ere ekar dezake.

Esan bezala, idatzi honetan aurreiritzi horietako batzuk begiratu eta aztertuko ditugu. Zerrenda luze batetik hautatutako batzuk dira, zoritxarrez askoz gehiago baitira aipa litezkeenak.

HIZKUNTZA ZAILAK ETA ERRAZAK

Ez dago horrelakorik, gure ustez. Hizkuntza bat zailagoa edo errazagoa izan daiteke guretzat, gure abiapuntuaren arabera. Katalan batentzat, adibidez, errazagoa da gaztelania poloniera baino. Baina txekiar batentzat, errazagoa da poloniera

gaztelania baino. Familia berekoak edo antzekoak diren hizkuntzak (frantsesa eta italiara, esaterako) errazagoak dira hitzun horrentzat, abiapuntuan hurbil dagoelako.

Gainera, hizkuntza batzuk besteak baino zailagoak balira, hizkuntza hori erabiltzen duten umeei besteei baino gehiago kostatuko litzaieke hizkuntza ikastea; hori, guk dakigula bederen, ez da inon dokumentatu edo aurkitu. Guk dakigunez, mundu osoan hizkuntzaren jabeak antzeko erritmoan gertatzen da, eta ez dugu inoiz aditu «ez-dakitononak denbora gehiago behar dute hitz egiten ikasteko». Hala balitz, hizkuntza hori ez litzateke praktikoa izanen eta hizkuntzen arteko lehian ez luke aukerarik izanen, hizkuntzen arteko

PORTUGESA

EUSKERA

MONGOLIERA

ZULUERA

KIRGIZERA

MALAYALAMA

EUSKERA

MONGOLIERA

GAELIKOA

INGELES

FRANTSESA

hizkuntza primitiboak

«hautespen naturala» ere ez luke pasako.

Egia da batzuetan –beste hizkuntza bat ikasten ari garenean, batez ere- harrizta gelditzen garela hizkuntza jakin batek alderdiren batean (deklinabidea, aditza...) duen konplexutasunarekin. Jakina, oso «zaila» irudituko zaigu. Baina egin diren ikerketek erakusten dute hizkuntzaren alderdiren bat sinpleagoa eta erregularagoa izan arren, ziur asko besteren batean konplexutasuna handiagoa dela, eta hizkuntza guztiek sinpletasun/konplexutasunaren arteko barne oreka bat mantentzen dutela.

Adibidez, hizkuntza batek bi bokal eta bi kontsonante bakarrik baleuzka, oso erraza izanen litzateke lau soinu horiek ikastea. Baina hain soinu gutxirekin, hitz guztiak oso antzekoak izanen lirateke eta oso zaila izanen litzateke hitz asko ikastea; gainera, hitz ikaragarri luzeak sortu beharko lirateke esanahi ezberdinak bilitzeko. Alderdi bateko sinpletasunak, ondorioz, sekulako zailtasuna ekarriko luke beste alderdi batean. Oreka hori da, beraz, era ezberdinetan hizkuntza guztiek bilatu dutena

HIZKUNTZA HANDIAK ETA TXIKIAK

Hizkuntza batzuek hiztun asko dituzte, eta beste batzuek gutxiago. Baina hizkuntza bera ez da horregatik handiagoa

edo txikiagoa. Hiztun gehien dituen –Txinako mandarin hizkuntza-, ez da alemana baino handiagoa, adibidez, nahiz eta hiztun askoz gehiago izan. Eta ez da euskara baino handiagoa. Beraz, handiagoa dena hiztunen kopurua da, ez hizkuntza bera.

Hizkuntzen gaineko aurreiritzi edo prejuizio ugari daukagu, eta askotan ez gara horretaz ohartzen

Esan beharra dago «handia» edo «txikia» esatea ez dela neutroa, nolabaiteko garrantzia edo prestigioa ematen baitio hizkuntzari. Lehenago ere esan dugu hizkuntzaren prestigioak edo prestigiorik ezak ere bestelako ondorioak izan ditza keela. Zehatzagoa da hizkuntza batek hiztun gutxiago dauzkala esatea, baina gogoan izanda hiztun gutxiago izateak ez liokeela eskubiderik kendu behar hizkuntzari, ezta duintasunik ukatu behar ere.

Bestalde, zenbaitek uste dute hizkun-

tza batek zenbat eta hiztun gehiago izan, orduan eta aberatsagoa eta perfektuagoa izanen dela. Aberatsagoa, agian, hiztegiaren izanen da (baina soilik agian), baina egitura eta potentzial aldetik ez. Edozein hizkuntzak, oso hiztun gutxi izanda ere, ahalmena eta potentziala dauka gizakia- ren behar guztiak asetzeko, behar bezala garatzen utziz gero.

Azkenik, kontuan izan behar da hiztun asko dituzten hizkuntzak askotan barietate ugari banatzen direla, eta elkarren artean ulertzeko zailtasun handiak sortzen direla: hizkuntza bat ote da, orduan, edo hizkuntza ezberdinez hitz egin beharko dugu? Arazo honek agerian uzten duena, azken batean, hau da: hizkuntza eta dialektoen arteko mugak oso labainkorak dira, eta normalean komeni zaigun moduan erabiltzen ditugu kontzeptuok.

HIZKUNTZA PRIMITIBOAK ETA MODERNOAK

Batzuk uste dute, baita esan ere, hizkuntza batzuk primitiboagoak direla. Jakina, buruan dituztenak Afrikako, Amazonaseko edo Australiako tribuen hizkuntzak dira. Uste dute ez direla hain hizkuntza eboluzionatuak, sinpleagoak direla, ez hain preziosoak... Hori guztia aurreiritzien eta ezjakintasunaren ondorioa da.

HINDIA

ALBANIERA

ITALIERA

GAELIKOIA

ERRUMANIERA

MALAYALAMA

KIRGIZERA

LATINA

GAZTELERA

ZULUERA

EUSKERA

TSWANA

kuntza sinpleak

kultur hizkuntzak

Hizkuntza horiek aztertu eta ezagutu dituzten hizkuntzalariek garbi esan eta erakutsi dute hizkuntza horien egitura besteena bezain aberatsa eta konplexua dela. Ustezko hizkuntza primitibo horien zenbait ataletan (aditza eta morfologia, esaterako), batzuetan sistema oso konplexuak agertzen dira, eta guk adierazi ezin ditugun gauzak adieraz ditzakete. Adibidez: hizkuntza batzuetan, marka morfologiko baten bitartez (aditzaren barruan dagoen soinu jakin bat), adieraz daiteke esandakoa entzun den, ikusi den, norbaitek kontatua den, ustea besterik ez den... Oso ñabardura zehatzak egiteko balio duen sistema da, gure inguruko hizkuntza «modernoek», esaterako, ez dutena.

Garrantzitsuena zer da? Bada, hizkuntza guztiek balio dutela edozein gauza adierazteko, eta potentzial berbera dutela, aukera berberak dituztela. Hizkuntza guztiak dira oso sistema aberatsak eta eraginkorrak. Bestela, lehen aipatu dugun «hautespen naturalaren» ondorioz, desagertu izan ziren aspaldi.

KULTUR HIZKUNTZAK

Hizkuntza batzuk kultura-hizkuntzak omen dira, eta beste batzuk ez. Hori ere, topikoa eta aurreiritzia. Izan ere, hizkun-

tza guztiek dute atzean kultura bat, eta, beraz, denak dira kultura-hizkuntzak. Kontua da batzuentzat kultura dela mendebaldeko zibilizazioa, literatura, testu idatziak eta zientzia, besterik ez. Baina kultura hori baino askoz gehiago da, eta herri guztietan garatu den ahozko literatura ere, adibidez, Kultura da, maiuskulaz idatzia gainera. Ezin da, gure ustez, kulturen arteko hierarkiarik egin.

HIZKUNTZA SINPLEAK ETA KONPLEXUAK

Lehen azaldutako «primitibo/moderno» ideiarekin zerikusia du. Edozein hizkuntza, baita tribu galduenaren hizkuntza ere, gizakiaren sormenaren produktu zoragarria da, izugarritzko konplexutasuna duena.

Primitibotzat jotzen diren kultur eta herrien hizkuntzak, askotan, sistema eta egitura harrigarriak eta oso konplexuak erakusten dituzte. Kasu guztietan, hizkuntzak herri edo kultura horri balio dio bere bizitza egiteko. Eta bizimodua aldatzen bada, hizkuntza bera ere egokituko da, baduelako horretarako malgutasuna eta potentziala. Hizkuntza guztiek dute gaitasuna eta behar adina baliabide edozein gauza adierazteko, abstraktua nahiz zehatza, kulturala, metafisikoa edo teknologikoa.

HERRIALDE BATZUETAN HIZKUNTZAK IKASTEKO ERRAZTASUN HANDIAGOA DUTE

Erraztasun handiagoa ez, daukatena behar handiagoa da. Beharrak bultzatzen ditu hizkuntzak ikastera, eta beharrak laguntzen die horretan. Beharrik ez duenak, normalean, ez baitu ikasten. Ezin da pentsatu herri edo komunitate batzuk berez besteak baino iaioagoak direnik hizkuntzak ikastea, azkarragoak direnik, beste edozer gauzatarako ez diren bezalaxe. Guk, behintzat, gizakion eta herrien arteko berezko berdintasunean sinesten dugu. Inguruak, bizimodu jakin batek eta beharrak sortzen ditu ezberdintasunak.

IKASKETAK DITUEN JENDEAK HOBEBI HITZ EGITEN DU

Ikasketadunek, askotan araututako hizkuntza ereduak hobeki ezagutzen dute eta hobeki erabiltzen dute. Baina ongi hitz egitea ez da araua betetzea, baizik eta egoera bakoitzean erabili behar den hizkera erabiltzea, barietate hori ongi erabiltzea, eta komunikazioa lortzea. Eta hori, esaterako, oso ongi egin daiteke eta egiten da, egoera askotan, etxean ikasitako hizkera erabiliz.

TXISTEAK

Aitona hilzorian dago, ohean; begiak ireki, eta hor hasi da hizketan:

- Maria, hemen al zaude?
- Bai, bai, hemen nago. Hemen nago.
- Andres, hemen al zaude?
- Bai, hementxe nago, aitona, hementxe nago.
- Xabier, hemen al zaude?
- Bai, lasai aitona, hemen nago. Hemen gaude denak.
- Denak hemen al zaudete?
- Bai, bai, zure ondoan, hemen gaude denak.
- Eta denak hemen baldin bazaudete, zergatik dago pasilloko argia piztuta?

Gaur gauean beste era batean egingo dugu, konforme?» esan du senarrrak. «Ongi da –dio emazteak—Ni sofan eseriko naiz zuk arropa lizantzen duzun bitartean»

Hil baino lehen nahitaez jakin beharrekoak:

- 1.- Donald ahatearen izen osoa Donald Fauntleroy Duck da
- 2.- 1997an, Estatu Batuetako hegazkin-enpresek 40.000 dolar aurreztu zituzten entsalada bakoitzari oliba bat kenduta
- 3.- Jirafa batek bere belarriak mingainarekin garbitu ditzake
- 4.- Katagorriek nahi gabe milioika zuhaitz landatzen dituzte, haziak lurperatu ondoren non utzi dituzten ahaztu egiten zaielako
- 5.- Esna egoteko hobe da sagar bat jatea kafea hartzea baino
- 6.- Inurriek, goizean esnatzen direnean, luzaketak egiten dituzte
- 7.- Hortzetako eskuila urdinak gehiago erabiltzen dira gorriak baino
- 8.- Zerria da, gizakiaz gainera, eguzkitan erretzen den animalia
- 9.- Inork ezin du bere ukondoa mingainarekin miazkatu; guztiz ezi-nezkoa da
- 10.- Hondatzen ez den elikagai bakarra ezta da
- 11.- Begi bat irekita dutela egiten dute lo izurdeek
- 12.- Ostrukaren begia bere burmuina baino handiagoa da
- 13.- Ahate baten «kuak soinuak ez du oihartzunik sortzen, eta inork ez daki zergatik gertatzen den hori.
- 14.- Ezin da begiak itxi gabe doministiku egin.
Eta azkenekoa
- 15.- Bitxikerien zerrenda hau irakurri dutenen % 99 saiatu da mingainarekin ukondoa miazkatzen.


EROSKOPOA




Aries: Uda heldu dela ta uain, estu ta larri bikini operazioa ein nahien eh....



Taurus: Batzutan gauzek arpegire esan behar izaten die, bestela kulpaik ez duenak ordaintzen due.



Gemini: Katuri etzaio bosgarraren hanka billatu behar, gauzak eman bezala die eta kitto.



Cancer: Urtebetetzetan oparrie jasotzearren uain mundu guziri erroska eitea ez da oso legezkoa.



Leo: Sanjuanetan sorginkerin bat ein beharko dozo, hori da ta zure espezialitatea.



Virgo: Sanjuanetan sorginkerin bat ein beharko dozo, hori da ta zure espezialitatea.



Libra: Bat gehi bat bi, bi gehi bi lau, errepasa itzazu uda hontan klasen ikasitakoak.



Scorpius: Uda heldu dela, heldu dela, beño ez emozionatu gehiegi eta kontuz eguzkikin eh...




Sagitaris: Oporretarako planik ez dozola oraindik, eta zeren esperoan zaude, ba?



Capricornius: Umek beño okerragoa zaa, zuretzat oparirik ederrena tiobibotan buelta bat ematea da ezta?



Aquarius: Urte guzin kirola ein nahien ta beti aitzakin bat ateatzen ziñun, ba uain baikizo irain aitzakik jarri gabe.



Piscis: Beti parrandarako prest zu, denak harrapatu nahien, San Juanak, San Ferminak, San Tiburtzioak..., ba denak ezin ditezke.

zer diozu?

eta zuk,

Jon Arangoa



- Badago Leitza ezagutzen ez duen jendea. Nola gerta liteke horrelakorik? Pena da, zer galtzen duen balezkie. Publizitatea itten hasi beharkou.
- Leitzako enbaxadore izan beharko bazenu, zer herrialde aukeratuko zenuke? Zelanda Berria. Hemengo jendea hango lurraldeta, bakaziota errexago bialtzeko.
- Zer liburu ez zenioke inori gomendatuko? Irakurtzen dítottotenak, aurretik onak dien jakiten saiatzen naiz. Ez nuke zehazki bat esango.
- Eta ikusi behar ez den pelikula? «Irreversible» ez zitzain bate gustatu.
- Gustuko ez duzun musika mota bat? Leku askotan jartzen duen ta erabat berdiñe den «bakalloak» ez dit gehiegizko grazik itten.
- 10 lagunentzako afaria egin behar izanez gero, zer prestatuko zenuke? Tipikoa. Axuri ear bat edo nahiko txuleta.
- Nola moldatzen zara hobeki, euskeraz edo erdaraz? Euskeraz.
- Autoan abesteko ohitura al daukazu? Oso altu? Bakarrik noanen beti, ta bestela ere gehienetan. Bai.
- Leitzan zenbat jende bizi den ba al dakizu? Baietz ustet. 2850 eta 2900 pertsona inguru gaude.
- Zuretzako moduko lanbide bat? Neri, mekanika arloan lan ittea gustatuko litzaieke.
- Zer egiten duzu, haserre zaudenean, lasaitzeko? Oihu handi bat bota edo haserrea pasa arte korrika ittea joan.
- Eta triste zaudenean, alaitzeko? Lagunen bat deittu eta musika alaie aittu.
- Zenbat ordu egiten dituzu, batez beste, telebista aurrean egunero? Ordubate edo gehixeo

Nekane Garrido

- Badago Leitza ezagutzen ez duen jendea. Nola gerta liteke horrelakorik? Kanpoko norbaitek ez ezautzea ez da hain arraroa, lehenengo leitzararak ezautu beharko giñuke ongi eta!
- Leitzako enbaxadore izan beharko bazenu, zer herrialde aukeratuko zenuke? Galizia, bi aldiz pentsatu gabe.
- Zer liburu ez zenioke inori gomendatuko? Enaiz oso irakurzalea, egie esan.
- Eta ikusi behar ez den pelikula? Edozein subtitulatu.
- Gustuko ez duzun musika mota bat? Bakailo gogorra
- 10 lagunentzako afaria egin behar izanez gero, zer prestatuko zenuke? Entsalada epela eta txuletak piperrekin. Postretarako, berriz, sagar tarta.
- Nola moldatzen zara hobeki, euskeraz edo erdaraz? Euskeraz, dudik gabe.
- Autoan abesteko ohitura al daukazu? Oso altu? Bai, eta oso gustukoa badut abestiren bat, altu xamar
- Leitzan zenbat jende bizi den ba al dakizu? Galdetzen didaten guztiei 3.000 inguru esaten diet beti, zehatz ez dakit eta!
- Zuretzako moduko lanbide bat? Bulegoan lan egitea.
- Zer egiten duzu, haserre zaudenean, lasaitzeko? Bakarrik egon beharra naiz, bestela inguruko edozeinek patzen do dena.
- Eta triste zaudenean, alaitzeko? Hemen ez dauden lagunei idatzi.
- Zenbat ordu egiten dituzu, batez beste, telebista aurrean egunero? Ordu bat asko jota, ez daukat denborarik eta!

